



## II. IRIZPIDEAK

---



## II.01. IRIZPIDEAK

---

I. tomoan (Hirigintza Informazioa), hirigintza-plangintzan eragina duten ikuspegi sektorialen xehapen bat aurkeztu da eta bertan adierazitako diagnostia aztertu ondoren, udalerrri honen etorkizunak luzamendurik gabe indarrean dauden Arau Subsidiarioek ezarritako edukiak berrikustea eta berriz aztertzea eskatzen duela baieztatu dezakegu ondorio gisa.

Izan ere, azken datu demografikoen islatzen duten errealitateak adierazten duenez, azken urteotan –bai eta Arau Subsidiarioak onartu zirenetik ere–, bizileku-garapenerako eta jarduera ekonomikoak ezartzeko asmoz lurzoru egokia lortzeko ahalegin handia egin arren, Errenteriako biztanleen kopuruak behera egin du.

Beste datu batzuek egoiliarren bizi-kalitateak hobera egin duela esaten badigute ere, udalerrriaren barruan jarduera ekonomikoak hartzeko lurzoru-ahalmena agortuta dago une honetan eta, gaur egun eskuragarri ditugun aurreikuspenen arabera, biztanleek etxebizitza duina izateko Konstituzioak onartzen duen eskubidea gauzatzea ezin izango da ziurtatu, bizileku-erabilerarako lurzoru-ahalmena agortu egingo baita etorkizun hurbilean. Hau guztia berresteko, nahikoa da gaur egun etxebizitzak eraikitzeke dagoen ahalmena aztertzea.

Agerikoa dirudi, beraz, garapen-zehaztapen berri batzuk izatea ziurtatuko duten bidezko neurriak hartzen badira hirigintza-aurreikuspenen ikuspuntutik bederen eta ahalik eta epe laburrean joera hori aldatzea lortuko dela.

Garapen berri hauek ordea, lotutako beharrezko ahaleginak kontuan hartuta, ez dute alde batera utzi behar beti baliozkoa den helburu bat, hots, ahal den neurrian herritar guztien bizi-kalitate hobea ziurtatzeko ikuspegiarekin egungo hiri berreskuratzeko borondate iraunkorra inplikatzeko.

Gaur egun, halaber, ezin dira ahaztu udalerrri honetako lurzoruan zuzeneko eragina izango duten garraio-azpiegitura berrietarako (bide eta trenbide azpiegiturretarako) dauden aurreikuspenak: Donostiako Bigarren Ingurabidea eta EAeko Trenbide Sare Berria. Azpiegitura hauek direla eta, etorkizunean ezarriko diren garapenak lurralde-izaerako jarduketara horiei egokitu beharko zaizkie.

Errenteria, dakigunez, Donostiako eskualde-egituran kokatuta dago eta, hirigintza eta lurralde izaerako gaitan eragina duten alderdi askotan, udalerrrian beste Administrazio eskudun batzuen bitartez hartzen diren zehaztapenen eta aurreikuspenen mende geratzen da (Hezkuntza, Kultura, Sanitatea, Garraioa eta abar). Baina, aldi berean, Errenteriak eragin handiko zeregina bete izan du bere hurbileko esparruan. Ildo honetan, beharrezkotzat hartzen da udalerrri honi mota orotako aukerak eta tresnak ematea (zuzkidurakoak eta ekonomikoak) eskualde-mailan izaera dinamikoa eta nagusitasun handia garatu eta ziurtatu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, adierazten diren planeamenduaren zehaztapen berriak ez dira eraginkorrak izango beraiekin batera bidezko eta zentzuzko kudeaketa-estrategiak aurkezten



**Plan Orokorraren Bulegoa**  
**Oficina del Plan General**

---

ez badira. Estrategia hauek emaitzarik onenak ziurtatu beharko dituzte ikuspuntu ekonomikotik zein emaitza horiek hiri-diseinu egokiaren eta, beraz, hiriaren eraikuntza egokiaren –zenezurik zabalenean hartuta– ezinbesteko erreferentziaren barruan izango duten azken islaren ikuspuntutik.

Azken batean, kontsiderazio hauen guztien ondorio gisa, planeamenduaren "irizpide, helburu eta irtenbide orokorrak" biltzen dituen dokumentu hau lantzeko eta aurkezteko irizpideak ondoko kontsiderazioetan oinarrituta daudela esan dezakegu:

- Egungo hiria berreskuratzen jarraitzeko borondatea.
- Hiriaren garapen orekatua ahalbidetzeko beharrezkoak diren mekanismoen (plangintza zein kudeaketa mekanismoen) ezarpena, espazioaren lurralde-erreferentzia kontuan hartuta.
- Lurzoruaren erabilera jasangarrien aldeko apustua hirigintza-plangintzan.